

## **EUSKARA ETA BERE DIDAKTIKA I**

Educación Musical 6 créd.

### **Deskribatzaileak**

Euskal hizkuntzaren ezagutza eta erabilera , bai aldaki bateratuaz zein euskalkiez. Euskararen didaktikaren oinarrizko printzipioak.

### **Helburuak**

Euskara eta bere didaktika I ikasgaia bukatutakoan, ikasleak oinarrizko euskararen lau trebetasunak garatu behar ditu. Beronen ezagutzak eta mailari dagozkion gaitasun linguistikoak ulermen eta produkzio mailakoak izan behar dute, ikasleak eskolan euskara erabiltzeko gai izango dela bermatzeko.

Gainera, euskararen didaktikaren oinarrizko zenbait kontzeptu eskuratzea ere ikasgai honen helburu nagusienetakoa da.

### **Edukiak**

- 1.- Ahozko hizkuntza. Testuen ulermena (entzumena). Testuen ekoizpena (mintzamina)
- 2.- Idatzizko hizkuntza. Testuen ulermena (irakurmena). Testuen ekoizpena (idazmena).
- 3.- Hizkuntza formak: izen sintagma, aditza, sintaxia,... (HABEk 1999an argitaratutako curriculumean 1.go mailarako proposatzen dituenak ).
- 4.- Euskararen didaktika: Lau trebetasunak hizkuntzaren irakaskuntzan I. Hizkuntzak irakasteko metodoak I.

### **Metodologia**

Ikasgairako proposatzen den metodologiak honako puntu hauek izango ditu kontuan:

- 1.- Gure ikasleak eskolan hurrekin izango dituzten beharrak; hortaz, hurrei zuzendutako testu eta materialei lehentasuna emango zaie.
- 2.- Ikaslearen jarduera: ikasleak era kritiko, aktibo eta sortzailean lan egingo du.
- 3.- Malgutasuna: metodologia malgua eta irekia izango da, ikasle taldeak eta ikasgelak baldintzatuko dutelarik.

4.- Gelako antolaketa: ikasgelan banaka, talde txikian eta talde osoan jardungo

dugu erabiliko dugun ekintza motaren arabera.

### **Ebaluaketa**

Azken azterketa ekainean izango da. Azterketan idatzizko eta ahozko frogak egingo dira. Ikasturtean zehar egindako lana ere baloratuko da.

### **Tutoretza**

Taldeka zein bakarkakoa izan daiteke eta tutoretza orduetarako ezartzen diren orduetan egingo da. Berton eskoletan azaldutako gaien eta berauei lotutako lan praktikoen inguruan jardungo dugu.

## **Bibliografia**

### *Gramatika liburuak*

ALBERDI, A.,1996, *Eskola gramatika*. Elkar. Donostia..

BUTRON, J. eta PEDRO J. de 1989, *Euskal gramatika praktikoa*. Erein. Donostia.

SALABURU, P.,1987, *Ikaslearen esku gramatika*. Mensajero. Bilbo.

ZUBIRI, I.,1991, *Gramática didáctica del euskera*. HABE. Donostia.

ZUBIRI, I. eta ZUBIRI, E.,1995, *Euskal gramatika osoa*. DIDAKTIKER. Bilbo.

## **Euskara ikasteko metodoak**

DIDAKTIKER s.a.,1984-94, *Benetan euskaraz*. DIDAKTIKER s.a. Bilbo.

IKAS ETA ARI, 1995, *Hitzetik Hortzera*. 5. Urratsa. Ardatz kultur etxea.

IRIONDO, E. *Eta beste: Baietz ba*. EHU/UPV.

LETAMENDIA, J.A.,1995, *Bakarka 1,2,3*. Elkar. Donostia.

MUJIKA, J.A.,1995, *Bakarka 4,5*. Elkar. Donostia.

OLMO del, K. *Eta ARESTI, B.G.,1990, Berbetan*. S.A.L.

## **Hizkuntza funtzioak lantzeko**

AEK, 1990,.: *Euskalduntzerako helburuak: esakuneak*. AEK. Bilbo.

AEK, 1990,.: *Euskalduntzerako helburuak: nozio espezifikoak*. AEK. Bilbo.

## **Hiztegiak**

BOSTAK BAT, 1999, *Sinonimoen hiztegia*. Antonimoduna. Bostak bat. Bilbo.

ELHUYAR, 1994, *Euskal Hiztegi Modernoa*. Elhuyar/Elkar.

ELHUYAR, 1996, *ELHUYAR Hiztegia*. Elhuyar Kultur Elkarte. Usurbil.

SARASOLA, I., 1997, *Hauta lanerako euskal hiztegia*. Kutxa. Donostia.